

Xedapen Orokorrak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3105

173/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, mendi-kiroletako eta eskaladako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren irakaskuntzei dago-kien curriculuma ezartzekoa, eta horietan sartzeko probak eta baldintzak arautzekoa.

Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak araubide bereziko irakaskuntzat hartu zituen kirol-teknikarien titulu ofizialak ateratzekoak. Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezarritako xedapenak oinarri hartuta emandakoa da Dekretu hori, eta haren bidez sartu ziren kirol-irakaskuntzak hezkuntza-sisteman, eta horren arabera ezarri zen gerora hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren 7.3 artikuluan.

Gerora, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren VIII. kapituluko 63., 64. eta 65. artikuluetan xedatu ziren horiei buruzko printzipio orokorrak, antolatzeko modua, eta tituluak eta baliozkotzeak, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, ordurako baziren kirolaren arlo-arekin zerikusia zuten zenbait titulu. Esate baterako, martxoaren 3ko 318/2000 Errege Dekretuak mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako kirol-teknikari eta goi-mailako kirol-teknikari tituluak ezarri zituen, eta irakaskuntza horien gutxieneko irakaskuntzak eta horietan sartzeko probak eta baldintzak onartu. Ondoren, lehen adierazi dugun Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa garatzeko, 1363/2007 Errege Dekretua eman zen, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzekoa.

Errege Dekretu horren bigarren xedapen iragankor-
rak dio abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekre-
tuaren babesean ezarritako ikasketak indarrean egon-
go direla titulu eta ikasketa berriak sortu arte, bertan
adierazten diren modalitateetan eta espezialitateetan.
Horrez gain, aipatutako irakaskuntzei aplikatu beha-
rreko zenbait alderdi ere zehazten dira.

Horregatik eta aipatutako Errege Dekretuaren
araudia garatzerakoan kirol-teknikari eta goi-mailako
kirol-teknikari tituluak aldatu arte edo berriak sortu
arte, indarrean egongo da martxoaren 3ko 318/2000
Errege Dekretua, titulu horiek ezarri zituen, eta ira-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3105

DECRETO 173/2010, de 29 de junio, por el que se establece el currículo correspondiente a las enseñanzas de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior en las especialidades de los deportes de montaña y escalada y se regulan las pruebas y requisitos de acceso correspondientes.

El Real Decreto 1913/1997, de 19 de diciembre, configuró como enseñanzas de régimen especial las conducentes a la obtención de titulaciones de técnicos deportivos. Tal Real Decreto dictado sobre la base de las previsiones establecidas en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, introdujo las enseñanzas deportivas en el sistema educativo conforme quedó recogido en el artículo 7.3 de la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación.

Posteriormente Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación les dedica su Capítulo VIII abordando en sus artículos 63, 64 y 65 los principios generales, la organización, titulación y convalidaciones de las mismas respectivamente.

No obstante para entonces ya habían aparecido diversas titulaciones ligadas al ámbito deportivo. Tal era el Real Decreto 318/2000, de 3 de marzo, por el que se establecían los títulos de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo superior en las especialidades de los Deportes de Montaña y Escalada, se aprobaban las correspondientes enseñanzas mínimas y se regulaban las pruebas de acceso a estas enseñanzas. Posteriormente en desarrollo de la Ley Orgánica de Educación, mencionada con anterioridad, se dictó el Real Decreto 1363/2007, de 24 de octubre, por el cual se establece la ordenación general de las enseñanzas deportivas de régimen especial.

La disposición transitoria segunda de dicho Real Decreto establece la vigencia de las enseñanzas establecidas al amparo del Real Decreto 1913/1997, de 19 de diciembre, hasta que se creen los nuevos títulos y enseñanzas en las modalidades y especialidades que ahí se determinan, y así mismo, detalla determinados aspectos que tienen que aplicarse a las enseñanzas mencionadas.

Por ello hasta que, en el desarrollo normativo del citado Decreto se creen o modifiquen los nuevos títulos de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior siguen vigentes el Real Decreto 318/2000, de 3 de marzo, que estableció aquellos, así como las en-

kaskuntza komunak eta horietan sartzeko frogak eta baldintzak onartu zituen.

Era berean, aipatutako urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, hezkuntza-administrazio eskudunek ezarriko dute modalitateen curriculumak, eta, hala badagokie, kirol-espezializazioak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako, nork bere eskumeneko lurraldeko kirol-sistema izan behar du kontuan, irakaskuntzak eta kualifikazio-premiak bat etor daitezten.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio irakaskuntza arautzea maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan. Hortaz, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-arloko modalitateen eta espezialitateen curriculum-garapena eta kirol-modalitate horiei dagozkien titulueterako sarbidea arautzea, bai eta hori ezartzeko oinarritzko alderdiak arautzea ere. Horrez gainera, sektorearen dibertsitateari eta egoerari erantzungo dion eskaintza-mota izan behar du.

Hori guztia hala izanik, eta Kultura Sailari kontsulta egin ondoren, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak ezarritako arauak bete ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrira, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuak onartutako antolamenduri eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduaren 33. artikulua zehazten duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2010eko ekainaren 29an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea da, mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako kirol-teknikarien eta goi-mailako kirol-teknikarien tituluak ezarri zituen martxoaren 3ko 318/2000 Errege Dekretuaren 2. artikulua ezarritakoaren arabera, jarraian adierazitako tituluei dagokien curriculumak ezartzea eta horiek lortzeko irakaskuntzetan sartzeko berariazko probak arautzea:

a) Erdi-maila: goi-mendietako kirol-teknikaria, sakanetako kirol-teknikaria, eskaladako kirol-teknikaria eta mendi ertainetako kirol-teknikaria.

señanzas comunes y también las pruebas y los requisitos de acceso a las correspondientes enseñanzas.

A su vez, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 16 del ya mencionado Real Decreto 1363/2007, de 24 de octubre, las administraciones educativas competentes establecerán el currículo de las modalidades y, en su caso, especialidades deportivas, de acuerdo con el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de educación, teniendo en cuenta la realidad del sistema deportivo en el territorio de su competencia con la finalidad de que las enseñanzas respondan a sus necesidades de cualificación.

Habida cuenta que el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 16 establece que le corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la regulación de las enseñanzas en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, es necesario regular en el País vasco el desarrollo curricular de las diferentes modalidades y especialidades deportivas, el acceso a los diferentes títulos de las distintas modalidades deportivas así como los aspectos básicos para su implantación, junto al tipo de oferta que responda a la diversidad y a la realidad del sector.

En virtud de todo ello, consultado el Departamento de Cultura, oído el Consejo Escolar de Euskadi, cumplidos los trámites preceptivos a los que se refiere la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, tal y como se determina en el artículo 33 del Reglamento de organización y funcionamiento de la misma, aprobada por Decreto 167/2006, de 12 de septiembre, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de junio de 2010,

DISPONGO:

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto del Decreto.

El presente Decreto, de conformidad con lo establecido en el artículo 2 del Real Decreto 318/2000, de 3 de marzo, por el que se establecían los títulos de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo superior en las especialidades de los Deportes de Montaña y Escalada, tiene por objeto establecer el currículo y regular las pruebas de acceso de carácter específico correspondientes a los siguientes Títulos:

a) De Grado Medio: Técnico Deportivo en Alta montaña, Técnico Deportivo en barrancos, Técnico Deportivo en escalada y Técnico Deportivo en media montaña.

b) Goi-maila: goi-mendietako goi-mailako kirol-teknikaria, eskaladako goi-mailako kirol-teknikaria eta mendiko eskiko goi-mailako kirol-teknikaria.

2. artikulua.– Ezarpen-eremua.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen eremuan aplikatuko da.

II. KAPITULUA
IRAKASKUNTZEN HELBURUA

3. artikulua.– Xedea.

Dekretu honetan adierazitako tituluak lortzera zuzendutako irakaskuntzen helburua da ikasleei beharrezko prestakuntza ematea, hain zuzen, honetarako:

1. artikuluan adierazitako espezialitateetan gaitasun teknikoa eta profesionala izan dezaten bermatzeko, eta, ikasleak honako hauetarako gai izan daitezen:

a) Behar bezala eta kalitate onez aurre egiteko ikasleen ezaugarri anitzei eta kirol-jarduera mota guztiei (kirola guztiontzat, parte hartzeko kirola, errendimenduko kirola, errendimendu handiko kirola).

b) Heldutasun profesionala bermatzeko, etorkizunean ikasketa gehiago egitera eta aldaketetara egokitzeara bultzatuko duen heldutasuna.

c) Integrazioa bultzatzeko eta aniztasuna bermatzeko.

d) Kirol-modalitatearen eta -espezialitatearen ezaugarriak eta antolamendua ulertzeko eta dagozkien jarduerak gauzatzeak eragiten dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakiteko.

e) Beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskuratzeko, dagozkien zeregina segurtasun baldintzetan, ingurumenarekiko errespetuzko baldintzetan eta pertsonen osasuna aintzat hartutako baldintzetan betetzeko.

f) Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten hezkuntza- eta etika-balioak garatzeko, hedatzeko eta sustatzeko.

g) Gizonen eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko, generoarekin eta androzentrismoarekin lotutako topikoak eragotzita.

III. KAPITULUA
IRAKASKUNTZEN ANTOLAMENDUA ETA
EGITURA

4. artikulua.– Irakaskuntzen antolamendua.

Mendi-kiroletako eta eskaladako espezializazioetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren titulu ofizialak lortzera bideratutako irakaskuntzak

b) De Grado Superior: Técnico Deportivo Superior en alta montaña, Técnico Deportivo Superior en escalada y Técnico Deportivo Superior en esquí de montaña.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

El presente Decreto será de aplicación en el ámbito territorial de competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

CAPÍTULO II
FINALIDAD DE LAS ENSEÑANZAS

Artículo 3.– Finalidad.

La finalidad de las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos a los que se refiere el presente Decreto será la de proporcionar a las y los alumnos la formación necesaria para:

Garantizar su competencia técnica y profesional en las distintas especialidades contempladas en el artículo 1 que les posibilite:

a) Dar respuestas adecuadas y de calidad a la diversidad de alumnado y a los diferentes tipos de práctica deportiva (deporte para todas y todos, deporte de participación, deporte de rendimiento y deporte de alto rendimiento).

b) Una madurez profesional motivadora de futuros aprendizajes y adaptaciones al cambio.

c) Facilitar la integración y garantizar la atención a la diversidad.

d) Comprender las características y la organización de la modalidad y especialidad deportiva y conocer los derechos y obligaciones que se derivan del ejercicio de su actividad.

e) Adquirir los conocimientos y habilidades necesarias para desarrollar su labor en condiciones de seguridad, de respeto con el medio ambiente y la salud de las personas.

f) Desarrollar, transmitir y fomentar los valores educativos y éticos vinculados a la actividad física y el deporte.

g) Fomentar la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres y la utilización no sexista del lenguaje, evitando los tópicos relacionados con el género y el androcentrismo.

CAPÍTULO III
ORDENACIÓN Y ESTRUCTURA DE LAS
ENSEÑANZAS

Artículo 4.– Ordenación de las enseñanzas.

Las enseñanzas que conducen a la obtención de los títulos oficiales de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior en las especialidades de los de-

bi mailatan antolatzen dira: erdi-mailakoa eta goi-mailakoa.

a) Erdi-mailako irakaskuntzak kirol-teknikariaren titulua lortzera bideratutako prestakuntza hartzen du bere baitan, eta bi mailatan antolatuko da: erdi-mailako lehen eta bigarren maila.

b) Goi-mailako irakaskuntzak goi-mailako kirol-teknikariaren titulua lortzera bideratutako prestakuntza hartzen du bere baitan, eta maila bakar batean antolatuko da.

5. artikulua.– Maila bakoitzari dagokion irakaskuntzen egitura.

1.– Maila bakoitzeko irakaskuntzak honela egituratuta daude: bloke komuna, bloke espezifiko, bloke osagarria eta prestakuntza praktikoko blokea.

2.– Bloke horietako irakaskuntzak modulu teori-koetan eta teoriko-praktikoetan antolatuko dira.

3.– Dekretu honetan ezarritakoari dagokionez, honako hau hartuko dugu modulutzat: prestakuntza-unitate koherentea, gaitasun-atal batekin edo batzuekin lotura duena, edo tituluaren helburu profesionalekin, gizarte-heziketako helburuekin eta kirol-helburuekin lotura duena. Honako gutxieneko eduki hauek hartuko dituzte beren baitan prestakuntza-moduluek: izena eta kodea; moduluarekin lotutako gaitasun-atala; hezkuntza-helburuak emaitzetan adieraziak; oinarritzko edukiak; moduluaren gutxieneko ordu-iraupena eskola presentzialetan, eta ebaluazio-irizpideak.

4.– Irakaskuntza horietako blokeez gain, goi-mailako irakaskuntzak egingo dituzten ikasleek amai-erako proiektua egin eta gaingitu behar dute, goi-mailako kirol-teknikariaren titulua lortzeko.

5.– Bloke komuna.

Bloke Komuna zeharkako moduluez osatuko da, izaera zientifikoa, pedagogikoa, tekniko orokorra eta praktikoa izango dutenak. Horien bidez ezarriko dira oinarri orokorrak, mugimenduzko jardueren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak behar bezala eta segurtasun-baldintzetan garatzeko etapa guztietan, bai eta kirol-entrenamenduen prozesuak ere behar bezala eta segurtasun-baldintzetan garatzeko, kirola-rien premia eta interesak eta horiek gauzatzen diren egoerak kontuan hartuta. Prestakuntza-modulu horiek berberak dira kirol-modalitate eta -espezialitate guztietan, eta, halaber, derrigorrean egin beharrekoak dira. Hortaz, baliokideak dira kirol-modalitate edo -espezialitate guztietako maila edo gradu bereko irakaskuntzetan.

6.– Bloke espezifiko.

Bloke espezifikoak kirol-modalitate edo -espezialitateari berariaz dagozkion prestakuntza-moduluak hartzen ditu bere baitan, izaera zientifikoa, teknikoa eta praktikoa du-tenak.

portes de montaña y escalada se ordenan en dos gra-dos: medio y superior.

a) El Grado Medio comprende la formación que conduce a la obtención del Título de Técnico Depor-tivo y se organizará en dos niveles: primer y segundo nivel de Grado Medio.

b) El Grado Superior comprende la formación que conduce a la obtención del Título de Técnico Depor-tivo y se organizará en un único nivel.

Artículo 5.– Estructura de las enseñanzas de cada nivel.

1.– Las enseñanzas de cada nivel se estructuran en un Bloque Común, un Bloque Específico, un Bloque Complementario y un Bloque de Formación Práctica.

2.– Las enseñanzas de los bloques se organizarán en módulos de carácter teórico y teórico-práctico.

3.– Se entiende por módulo a efectos de lo dis-puesto en el presente Decreto la unidad coherente de formación que está asociada a una o varias unidades de competencia, o bien a objetivos profesionales, so-cioeducativos y deportivos del título. Los contenidos mínimos que se concretarán en los módulos formati-vos serán los siguientes: denominación y código, uni-dad de competencia vinculada al módulo, objetivos educativos expresados en resultados de aprendizaje, contenidos básicos, duración mínima en horas del módulo en la modalidad presencial y los criterios de evaluación.

4.– Además de los bloques en que se organizan estas enseñanzas, quienes cursen el Grado Superior deberán realizar y superar un Proyecto Final para la obtención del correspondiente título de Técnico De-portivo Superior.

5.– Bloque común.

El Bloque Común estará compuesto por módulos transversales de carácter científico, pedagógico, técni-co general y práctico que establecen las bases genéri-cas para el desarrollo adecuado y en condiciones de seguridad de los procesos de enseñanza y aprendiza-je de las actividades motoras en sus distintas etapas, así como de los procesos de entrenamiento deporti-vo en relación a las características, necesidades e in-tereses de los/las deportistas y el contexto en que se realizan. Estos módulos formativos son coincidentes y obligatorios para todas las modalidades y especia-lidades deportivas y por lo tanto tienen validez para las enseñanzas del mismo nivel o grado de cualquier modalidad o especialidad deportiva.

6.– Bloque específico.

El Bloque Específico contiene los módulos de formación deportiva específica de carácter científico, técnico y práctico propios de la modalidad o especia-lidad deportiva.

7.- Organo osagarria.

Bloke osagarriak bere baitan hartzen dituen moduluak honako gai hauekin dute lotura: teknologia-baliabideen erabilera, gutxitasunen bat duten pertsonenganako arreta, eta terminologia espezifikoaren ezagutza Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan edo beste hizkuntza batzuetan.

8.- Prestakuntza praktikoko blokea.

a) Prestakuntza Praktikoko Blokea gaitasunekin lotutako prestakuntzaren atalak osatzen du. Izan ere, kirol-ingurunean eta benetako ingurune profesionalean osatu behar da prestakuntza, teknikari tituludun batek gainbegiratzen duela.

b) Maila edo gradu bakoitzeko bloke komuna, bloke espezifikoa eta bloke osagarria egin ondoren egin behar da bloke hau.

c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango ditu jarraibideak Prestakuntza Praktikoko Blokearekin lotura duten alderdiak arautzeko: antolaketa, garapena, ebaluazioa eta kudeaketa, bai eta ikas-tetxeetan horiek betetzen laguntzeko arauak ere.

d) Prestakuntza Praktikoa instituzioetan, erakundeetan, hezkuntza-fundazioetan eta/edo kirol-fundazioetan egingo da, edo kirolaren sektorearekin lotura duten beste batzuetan, izan titulartasun publikokoak, izan erakunde pribatukoak. Horrez gain, prestakuntza praktikoa nazioarteko truke-programen esparruan ere egin daitezke, ikasleek norberari dagokion prestakuntza-mailan eskuratutako ezaguerak eta trebetasunak aplikatu ahal izateko.

e) Irakaskuntza horiek irakatsiko dituen ikastetxeak praktika-hitzarmena sinatuko du Prestakuntza Praktikoko Blokea egingo den kirol-zentroarekin edo erakundearekin, horretarako ezarriko den araudia betez.

f) Bloke hau garatzeaz praktiketako tutorea arduratuko da, dagokion maila edo gradukoa. Tutore horrek behar adina informazio, aholku eta orientazio emango die ikasleei. Horretarako, maila, gradu eta espezialitate bakoitzerako ezarritako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak hartuko ditu kontuan; horiek guztiak Dekretu honen II. eranskinean jasota daude.

g) Prestakuntza praktikoko blokea egitetik salbetsita daude, erabat edo zati batean, kirol- edo lan-arloan esperientzia dutela egiaztatzen duten pertsonak, betiere izandako esperientziaren iraupena prestakuntza praktikoko blokearen iraupena baino handiagoa bada; halako bi baino gehiago, zehazki. Esperientzia horrek bat etorri behar du ikasitako mailari eta modalitateari edo espezialitateari dagozkien gaitasunekin, ezarriko den araudiari jarraiki.

9.- Amaierako proiektua.

7.- Bloque complementario.

El Bloque Complementario comprende los módulos de contenidos relacionados con la utilización de recursos tecnológicos, así como la atención a la práctica deportiva de personas discapacitadas o el conocimiento de la terminología específica en las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco o en otros idiomas.

8.- Bloque de formación práctica.

a) El Bloque de Formación Práctica es el constituido por la parte de formación asociada a las competencias, que es necesario completar en el entorno deportivo y profesional real bajo la supervisión de un/una técnico titulado.

b) Este bloque debe realizarse una vez superados el Bloque Común, el Bloque Específico y el Bloque Complementario de cada Nivel o Grado.

c) El Departamento de Educación, Universidades e Investigación dictará las instrucciones que regulen los aspectos relativos a la organización, el desarrollo, la evaluación y la gestión del Bloque de Formación Práctica, así como las normas que faciliten su cumplimiento por los centros educativos.

d) La Formación Práctica se llevará a cabo en instituciones, organismos, fundaciones educativas y/o, deportivas, u otras relacionadas con el sector deportivo de titularidad pública o entidades privadas, así como en el marco de programas de intercambio internacional donde el alumnado pueda aplicar los conocimientos y destrezas adquiridas en la formación del nivel correspondiente.

e) El centro docente que imparta estas enseñanzas deberá establecer un convenio de prácticas con el centro o entidad deportiva donde se realice el Bloque de Formación Práctica de acuerdo con la normativa que se establezca.

f) Del desarrollo de este Bloque será responsable la o el tutor de prácticas del nivel o grado correspondiente. Este o ésta proporcionará la información, asesoramiento y orientación necesarios para el alumnado, de acuerdo con los objetivos, contenidos y criterios de evaluación, que para cada nivel, grado y especialidad, se recogen en el anexo II del presente Decreto.

g) Del Bloque de formación práctica podrán quedar total o parcialmente exentas las personas que acrediten una experiencia, dentro del ámbito deportivo o laboral, superior al doble de la duración del Bloque de Formación Práctica que se corresponda con las competencias definidas en el nivel y en la modalidad o especialidad cursada, de acuerdo con la normativa que se establezca.

9.- Proyecto final.

a) Goi-mailako kirol-teknikariaren titulua lortzeko, eta prestakuntza-prozesuari dagozkion bloke guztiak gainditu ondoren, ezinbestekoa da Amaierako Proiektua aurkeztea. Memoria bat izango da, justifikatzailea eta deskribatzailea, Dekretu honen II. eranskinean jasotako helburu, gai, eduki eta ebaluazio-irizpideei jarraiki egina.

b) Amaierako proiektua egiteko ez da beharrezkoa izango ikaslea eskolatzea. Dena dela, proiektua egiteko beharrezkoak diren baliabideak emango dizkio ikastetxeak, bertako zuzendaritzak horretarako ezarritako irizpideak betez.

c) Proiektu hori ikastetxean bertan edo beste nonbait egin daiteke, baita beste organismo, erakunde edo enpresa eskudun batzuekin batera ere.

d) Amaierako Proiektua egiteko, ikasleak aurreproiektua aurkeztu behar du ikastetxeko zuzendaritzan. Aurreproiektu horretan, proposamenaren justifikazioa adierazi behar du, bai eta haren ezaugarriak eta edukia ere. Proposamena onartu edo ez erabakitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: interes globala, orijinaltasuna eta bideragarritasuna.

e) Modalitate edo espezialitateari dagozkion prestakuntza-moduluak irakatsiko dituen ikastetxeko irakasle batek zuzenduko du proiektua eta hura izango da tutorea; prestigiodun profesional batek ere zuzendu dezake proiektua. Proiektuaren garapen-prozesuan ikasleari aholkuak ematea, informatzea eta hari orientazioa ematea izango da haren eginkizuna. Proiektua prestigiodun profesional batek zuzentzen badu, irakasle-taldeko kideren batek egingo ditu tutoretza-lanak.

Tutoretza-saioak banakakoak zein taldekoak izango dira.

Ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko du tutorea. Horrek txosten bat idatziko du ebaluazioa egin ahal izateko, eta, hala badagokio, koordinazio-lanak egingo ditu proiektua zuzenduko duen profesionalarekin.

f) Ordu guztien zenbaketarako, amaierako proiektuari 75 ordu esleitzen zaizkio.

10.- Adierazitako bloke horiek guztiek kontuan izan behar dute zenbait eduki garatu behar direla zeharka; esate baterako, ingurumena babestu eta zaindu beharra, aniztasunarekiko arreta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioak, eta, horiez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen beste batzuk.

a) Para la obtención del título de Técnico Deportivo Superior, y tras haber superado todos los bloques del proceso formativo, será necesaria la presentación de un Proyecto Final en forma de memoria justificativa y descriptiva de acuerdo con los objetivos, temática, contenidos y criterios de evaluación recogidos en el anexo II del presente Decreto.

b) No requerirá la escolarización del alumnado, aunque el centro deberá facilitar el uso de los recursos necesarios para su realización, según los criterios que la dirección del centro establezca.

c) El Proyecto Final podrá realizarse en el centro educativo o en un lugar distinto a éste, pudiendo llevarse a cabo en colaboración con otros organismos, instituciones, o empresas competentes.

d) Para la realización del Proyecto Final, el alumnado presentará a la dirección del centro un anteproyecto en el que se reflejará la justificación de la propuesta, las características y los contenidos de ésta. La aceptación de la propuesta se realizará en base a criterios de interés global, originalidad y viabilidad.

e) El Proyecto será dirigido y tutorizado por un profesor o profesora del centro educativo que imparta módulos formativos propios de la modalidad o especialidad, o algún/a profesional de reconocido prestigio, a fin de asesorar, informar y orientar al alumnado en el proceso de desarrollo del Proyecto. En este último caso actuará como tutor o tutora un o una miembro del equipo docente.

Se realizarán tutorizaciones tanto individuales como colectivas.

El o la tutora, que será designado o designada por la dirección del centro realizará un informe escrito para la evaluación y en su caso, se encargará de la coordinación con la o el profesional que dirija el proyecto.

f) La carga horaria del Proyecto Final a efectos de cómputo horario total es de 75 horas.

10.- Cada uno de los mencionados Bloques debe tener en cuenta el desarrollo de contenidos transversales relativos a la defensa y conservación del medio ambiente, a la atención a la diversidad y a los principios de igualdad entre hombres y mujeres, además de otros que disponga el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

IV. KAPITULUA

IRAKASKUNTZEN CURRICULUMA ETA MAILA ETA GRADU BAKOITZEKO PROFESIOALEN PROFILA

6. artikulua.– Curriculumaren kontzeptua.

Honi deritzo curriculum: helburu, oinarritzko gaitasun, eduki, metodo pedagogiko eta ebaluazio-irizpideen multzoa, kirol-irakaskuntzako ziklo bakoitzerako ezarritakoa.

7. artikulua.– Irakaskuntzen helburuak, oinarritzko edukiak, ebaluazio-irizpideak eta irakaskuntzen iraupena.

Dekretu honen II. eranskinean ezarri dira mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako erdi-mailako eta goi-mailako irakaskuntzei dagozkien bloke komun, espezifiko eta osagarriko, prestakuntza praktikoko blokeko, eta, eginez gero, amaierako proiektuko helburuak, oinarritzko edukiak, ebaluazio-irizpideak eta irakaskuntza horien gutxieneko iraupena. Horiez gain, prestakuntza-moduluekin lotutako gaitasun-atalak ere II. eranskinean ezarri dira.

8. artikulua.– Curriculum garatzeko orientazio metodologikoa.

Metodologiak esku hartu beharreko prozesuen ikuspegi orokorra eta koordinatua sustatuko du ikasleengan, II. eranskinean garatutako kirol-modalitate edo espezialitatearen irakaskuntzen eduki zientifiko, pedagogiko, tekniko, praktikoa, teknologiko eta antolamendu-arlokoen integrazioaren bidez, izan ere, beharrezkoa da integrazio hori.

9. artikulua.– Curriculum-egokitzapenak.

Kirol-irakaskuntzak egin nahi eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako, curriculumen sartzeko egokitzapenak egiteaz gain, curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ere egingo dira zenbait modulutan; nolahi ere, beti hartuko dira aintzat zikloaren helburu orokorrak. Egokitzapen horiek guztiak egiteko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren berariazko baimena beharrezkoa da beti.

10. artikulua.– Curriculumaren garapena ikastetxean.

1.– Dekretu honen bidez araututako irakaskuntzak irakatsiko dituzten ikastetxeek garatuko dituzte mendi-kiroletako eta eskaladako espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak lortzera zuzendutako irakaskuntzen curriculum. Horretarako, curriculum-proiektuak eta programazio didaktikoak egingo dituzte, kontuan hartuta, betiere, ikasleen ezaugarriak, ingurune prestakuntza-aukerak eta dagozkien kirol-arloko gaitasunak. Irakasleek dagozkien proiektu eta programazio didaktikoei jarraiki garatuko dute irakasle-jardura.

CAPÍTULO IV

EL CURRÍCULO DE LAS ENSEÑANZAS Y PERFIL PROFESIONAL DE LOS DIFERENTES NIVELES Y GRADOS

Artículo 6.– Concepto de currículo.

Se entiende por currículo el conjunto de objetivos, competencias básicas, contenidos, métodos pedagógicos y criterios de evaluación establecidos para cada ciclo de enseñanza deportiva.

Artículo 7.– Objetivos, contenidos básicos, criterios de evaluación y duración de las enseñanzas.

Los objetivos, contenidos básicos, criterios de evaluación y duración mínima de las enseñanzas de los Bloques Común, Específico y Complementario, del Bloque de Formación Práctica y, en su caso, del Proyecto Final de las enseñanzas del Grado Medio y del Grado Superior en las especialidades de montaña y escalada así como las unidades de competencia asociadas a los distintos módulos formativos desarrollados se establecen en el anexo II del presente Decreto.

Artículo 8.– Orientación metodológica para el desarrollo del currículo.

La metodología promoverá en el alumnado una visión global, real y coordinada de los procesos en los que tiene que intervenir, mediante la necesaria integración de los contenidos científicos, pedagógicos, técnicos, prácticos, tecnológicos y organizativos de las enseñanzas de la modalidad o especialidad deportiva desarrolladas en el anexo II.

Artículo 9.– Adaptaciones curriculares.

Para el alumnado con necesidades educativas especiales que desee cursar las enseñanzas deportivas podrán realizarse, además de las adaptaciones de acceso al currículo, adaptaciones curriculares individuales significativas en algunos de los módulos, manteniendo en todo caso los objetivos generales del Ciclo. Todas estas adaptaciones deberán contar siempre con la aprobación expresa de la Dirección de Innovación Educativa.

Artículo 10.– Desarrollo del currículo en los centros educativos.

1.– Los centros educativos en los que se impartan las enseñanzas reguladas por este Decreto desarrollarán el currículo de las enseñanzas conducentes a los títulos de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo Superior en las especialidades de los deportes de montaña y escalada mediante la elaboración de proyectos curriculares y programaciones didácticas, teniendo en cuenta las características del alumnado, las posibilidades formativas del entorno y las competencias del ámbito deportivo correspondiente. El profesorado desarrollará su actividad docente de acuerdo con los proyectos y programaciones didácticas correspondientes.

2.– Ikastetxeek beren curriculum-proiektua egitean, honako hauek zehaztuko dituzte:

a) Blokeen, moduluen eta ebaluazio-saioen denbora nola antolatu den, eta irakatsiko diren irakaskuntzen ordu-kopurua nola banatuko den. Saio teorikoak eta praktikoak ere zehaztu behar dira.

Irakaskuntza hauetan eskola-egutegia egokitu ahal izango da, aintzat hartuta kirol-modalitatearen eta -espezialitatearen berezitasunak eta eskaintza-mota, eta, betiere, Dekretu honetan ezarritako gutxieneko ordu-kopurua errespetatzen dela. Horrez gain, ikastetxeko zuzendariak arrazoitutako eskaera bat aurkeztu behar dio aurretik Hezkuntza Administrazioari, eta azken horrek balorazio positiboa eman behar du.

Ordu-alaketaren bat eskatuz gero, beti errespetatuko da egunean ez dituela zazpi eskola-ordu baino gehiago egingo inongo ikasle-taldek.

Ikastetxeak irakastaldia hasi baino gutxienez hila bate lehenago aurkeztu behar dio baimen-eskaera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

b) Amaierako proiektua, halakorik balego, egiteko eta ebaluatzeko irizpideak.

3.– Prestakuntza-moduluen programazio didaktikoek alderdi hauek hartuko dituzte beren baitan:

a) Modulu bakoitzaren unitate didaktikoak, zehaztuta helburuak, oinarritzko edukiak eta zeharkakoak, ebaluazio-jarduerak eta -irizpideak, bai eta unitate horietako bakoitzaren ordu-kopurua ere.

b) Modulu horietako bakoitzean erabiliko den metodologia, bat etorri beharko duena garatuko diren unitate didaktikoekin eta edukiarekin. Irakasteko metodoak eta estiloak, estrategiak, eta erabiliko diren baliabide materialak eta didaktikoak.

c) Ikasleak ikasitakoa ebaluatzeko prozedurak, teknikak eta tresnak, bai eta kalifikazio-irizpideak ere, zehaztuta moduluan ebaluazio positiboa lortzeko eskatuko diren gutxienekoak.

11. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Irakaskuntza-maila edo gradua gainditu ondoren eta dagokion ziurtagiria edo titulua lortu ondoren, ikasleak lan-egoeretan izan behar dituen gaitasun, lanbide-ahalmen eta erantzukizunen multzoak zehazten du lanbide-profila.

2.– II. eranskinean maila eta gradu bakoitzeko profilak definitzen dira, eta lanbide-profil mota bakoitzarekin lotutako kirol- eta lanbide-arloak ezartzen dira.

2.– En la elaboración del proyecto curricular de cada centro se concretará:

a) La organización temporal de los distintos bloques, módulos y sesiones de evaluación y la correspondiente distribución horaria de las enseñanzas que se impartan, especificando las sesiones teóricas y prácticas.

En estas enseñanzas podrá ajustarse el calendario escolar teniendo en cuenta las peculiaridades de la modalidad y especialidades deportivas y el tipo de oferta, respetando siempre las horas mínimas establecidas en el presente Decreto y tras la presentación de una solicitud razonada de la dirección del centro docente al Administración educativa y la valoración positiva por parte de ésta.

La modificación horaria que pudiera ser solicitada respetará que ningún grupo de alumnos y alumnas supere las siete horas lectivas al día.

Los centros educativos deberán presentar dicha solicitud con al menos un mes de anticipación al inicio del periodo lectivo para el que se solicita la autorización al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

b) Los criterios para la elaboración y evaluación, en su caso, del Proyecto Final.

3.– Las programaciones didácticas de los módulos formativos incluirán los siguientes aspectos:

a) Las unidades didácticas de cada módulo, especificando los objetivos, los contenidos básicos y transversales, las actividades y los criterios de evaluación, así como la distribución temporal de dichas unidades.

b) La metodología que se va a utilizar en el módulo correspondiente que deberá ser acorde a las unidades didácticas y contenidos a desarrollar, así como los métodos y estilos de enseñanza, estrategias, recursos materiales y didácticos que se emplearán.

c) Los procedimientos, técnicas e instrumentos para la evaluación del aprendizaje del alumnado y los criterios de calificación especificando los mínimos exigibles para obtener una evaluación positiva en el módulo.

Artículo 11.– Perfil profesional.

1.– El perfil profesional determina el conjunto de competencias, las capacidades profesionales y las responsabilidades en las situaciones de trabajo que el alumnado debe poseer tras la superación del nivel o grado de enseñanza cursado y la obtención de la certificación o título correspondiente.

2.– En el anexo II se define el perfil correspondiente a los distintos niveles y Grados, y se establecen los ámbitos deportivos y profesionales vinculados a cada tipo de perfil profesional.

V. KAPITULUA
IRAKASKUNTZETAN SARTZEA ETA ONARTZEA

12. artikulua.— Betekizun akademiko orokorrak.

1.— Erdi-mailako irakaskuntzetako lehen mailan sartzeko, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua edo pareko balio akademikoa duen tituluren bat izatea.

2.— Erdi-mailako irakaskuntzetako bigarren mailan sartzeko, ezinbestekoa izango da kirol-modalitate edo -espezialitate berean erdi-mailako lehen maila gainditu dela egiaztatzen duen ziurtagiria izatea.

3.— Goi-mailako zikloan sartzeko, ezinbestekoa izango da Batxilergo-titulua edo pareko balio akademikoren bat izatea, bai eta dagokion kirol-modalitate edo -espezialitateko kirol-teknikariaren titulua izatea ere.

13. artikulua.— Eskatutako titulazio akademikorik gabe sartzeko baldintzak.

1.— Izangaiek lehen adierazitako gutxieneko baldintza akademikoak betetzen ez badituzte, irakaskuntza horietan sartzeko aukera izango dute. Horretarako, tituluari dagokion ordezkoko proba gainditu beharko dute izangaiek. Proba hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko du eta organo eskudunak erabakitzen duen ikastetxean egingo da.

Horrez gain, lehen aipatu dugun Hezkuntza Administrazioak sartzeko probak prestatzeko ikastaroak eskaini eta programatu ahalko ditu, erdi-mailan sartzeko zein goi-mailan sartzeko probetarako. Ikastaro horiek egiteko, ikasleak gaindituta izan behar ditu, hurrenez hurren, Hasierako Lanbide Prestakuntzako programak edo Hasierako Lanbide programak, edo egin nahi dituen irakaskuntzekin lotutako kirol-teknikariaren titulua izan behar du.

2.— Bide horretatik erdi-maila egiteko, beharrezkoa izango da gutxienez hamazazpi urte izatea, eta goi-maila egiteko, berriz, gutxienez hemeretzi izatea (proba egiten den urtean beteak), edo hemezortzi, lortu nahi denarekin lotutako teknikari-titulu bat jaso izana egiaztatzen bada.

Proba horiek ziurtatu egin beharko dute:

a) Erdi-mailari dagokionez, irakaskuntza hauek probetxuz egiteko ezagutza eta trebetasun nahikoak badituela.

b) Goi-mailari dagokionez, Batxilergoko prestakuntza-helburuekiko heldutasuna bada.

3.— Proben epaimahaia.

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendutako epaimahaia, tituluari dagokion ordezkoko proba ebalua eta kalifika dezan.

CAPÍTULO V
ACCESO Y ADMISIÓN A LAS ENSEÑANZAS

Artículo 12.— Requisitos generales de acceso.

1.— Para acceder al primer nivel de las enseñanzas de Grado Medio será necesario tener el título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o equivalente a efectos académicos.

2.— Para acceder al Segundo nivel de las enseñanzas de Grado Medio será necesario acreditar tener superado el Primer Nivel de Grado Medio en la misma modalidad o especialidad deportiva.

3.— Para acceder al ciclo de Grado Superior será necesario tener el título de Bachiller o equivalente a efectos académicos, así como el título de Técnico Deportivo en la correspondiente modalidad o especialidad deportiva.

Artículo 13.— Requisitos de acceso sin la titulación académica requerida.

1.— Si las y los aspirantes no cumplieran los requisitos académicos mínimos anteriormente mencionados, también podrían acceder a las enseñanzas superando una prueba sustitutiva del correspondiente título regulado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y que se realizará en el centro educativo designado por el órgano competente.

Asimismo la citada Administración educativa podrá ofertar y programar cursos de preparación de las pruebas de acceso, tanto para el Grado Medio como para el Grado Superior, para aquellos alumnos/as que hayan superado, respectivamente, Programas de Cualificación Profesional Inicial o Programas de Iniciación Profesional, o posean un título de Técnico deportivo, relacionados con las enseñanzas a las que se pretende acceder.

2.— Para acceder por esta vía al Grado Medio se requerirá tener la edad de diecisiete años, y diecinueve para el acceso al Grado Superior, cumplidos en el año de realización de la prueba o dieciocho si se acredita estar en posesión de un Título de Técnico relacionado con aquél al que se desea acceder.

Estas pruebas deberán acreditar:

a) Para el Grado Medio, los conocimientos y habilidades suficientes para cursar con aprovechamiento dichas enseñanzas.

b) Para el Grado Superior, la madurez en relación con los objetivos formativos de bachillerato.

3.— El Tribunal de las pruebas.

a) El Departamento de Educación, Universidades e Investigación nombrará el Tribunal para la evaluación y calificación de la prueba sustitutiva del correspondiente título.

b) Honako hauek osatuko dute epaimahaia: presidentea edo epaimahaiburua (Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark horretarako ordezkio izendatzen duena) eta, gutxienez, lau epaimahaikide (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kasuan kasuko espezialitateetako kidegoetakoak, eta, halakorik ez balego, antzeko espezialitateetakoak). Idazkari-lanak epaimahaikide gazteenak egingo ditu. Emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko da epaimahaiko kideen artean.

4.– Prestaketa-ikastaroen eta tituluari dagokion ordezkio probaren kalifikazioa honela egingo da:

a) Sartzeko proba prestatzeko ikastaroak 1 eta 10 puntu artean ebaluatuko dira, dezimalik gabe.

b) Erdi-mailan sartzeko probaren azken nota, 1etik 10erako zenbakizko eskalan adieraziko da, eta zati bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da, bi dezimalekin adierazita, baldin eta kalifikazio guztiak lau puntukoak edo gehiagokoak badira. Sartzeko proba prestatzeko ikastaroa eginez gero, probaren azken nota hau izango da: lortutako emaitzaren batez besteko aritmetikoa gehi prestakuntza-ikastaroan lortutako kalifikazioa bider 0,15 eginda ateratzen den kopurua, baldin eta bost puntukoak edo gehiagokoak bada. Azken nota ez da inoiz izango 10 puntu baino gehiago.

c) Goi-mailan sartzeko probaren azken nota, 1etik 10erako zenbakizko eskalan adieraziko da, eta sarbide probako notaren eta kirol-teknikariari dagozkion irakaskuntzetako azken notaren batez besteko aritmetikoa izango da, bi dezimalekin adierazita, baldin eta kalifikazio guztiak lau puntukoak edo gehiagokoak badira. Sartzeko proba prestatzeko ikastaroa eginez gero, probaren azken nota hau izango da: lortutako emaitzaren batez besteko aritmetikoa gehi prestakuntza-ikastaroan lortutako kalifikazioa bider 0,15 eginda ateratzen den kopurua, baldin eta bost puntukoak edo gehiagokoak bada. Azken nota ez da inoiz izango 10 puntukoak baino gehiagokoak.

Nolanahi ere, kasu guztietan, bost puntuko edo gehiagoko kalifikazioak positibotzat joko dira, bost puntu baino gutxiagokoak negatibotzat.

5.– Dagokion titulurako ordezkio probek arautegi orokorrean ezarritako balioa izango dute.

6.– Probak gutxienez urtean behin deituko dira.

14. artikulua.– Berariazko betekizun akademikoak.

1.– Baldintza orokorrez gain, 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoak, irakaskuntzetan sartzeko beharrezkoa izango da berariazko proba bat gainditzea, ikastetxeak berak deituta, edo kirol-arloko eta/edo arlo profesionaleko merezimenduren baten ziurtagiria aurkeztea.

b) El Tribunal estará formado por un Presidente o una Presidenta, que será la o el Director de Innovación Educativa o aquella persona en la que delegue y, al menos, cuatro vocales pertenecientes al profesorado de Cuerpos de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria en las especialidades correspondientes o, en su defecto, al de especialidades afines. Actuará de Secretario o Secretaria el vocal o la vocal de menor edad. Se procurará en el Tribunal una representación equilibrada entre mujeres y hombres.

4.– La calificación de los cursos de preparación y de la prueba sustitutiva del correspondiente título se realizará de la siguiente forma:

a) Los cursos de preparación de la prueba de acceso serán evaluables de 1 a 10 puntos, sin decimales.

b) La nota final de la prueba para el acceso al Grado Medio, expresada en la escala numérica de 1 a 10, con dos decimales, será la media aritmética de las notas alcanzadas en las distintas partes, siempre que éstas sean superiores o iguales a cuatro. Cuando se haya realizado el curso de preparación de la prueba de acceso, la nota final de la prueba será la suma de la media aritmética, más la puntuación que resulte de multiplicar por 0,15 la calificación obtenida en el curso de preparación cuando ésta sea cinco o superior. En ningún caso la nota resultante será superior a 10.

c) La nota final de la prueba para el acceso al Grado Superior, expresada en la escala numérica de 1 a 10, con dos decimales, será la media aritmética de la nota de la prueba de acceso y la nota final de las enseñanzas de Técnico deportivo, siempre que ambas sean superiores o iguales a cuatro. Cuando se haya realizado el curso de preparación de la prueba de acceso, la nota final de la prueba será la suma de la media aritmética más la puntuación que resulte de multiplicar por 0,15 la calificación obtenida en el curso de preparación cuando ésta sea cinco o superior. En ningún caso la nota resultante será mayor a 10.

En todos los casos serán positivas las calificaciones iguales o superiores a cinco y negativas las inferiores a cinco.

5.– Las pruebas sustitutivas del correspondiente título tendrán la validez prescrita en la normativa general.

6.– Se convocarán este tipo de pruebas, al menos, una vez al año.

Artículo 14.– Requisitos de acceso de carácter específico.

1.– Además de los requisitos generales establecidos en los artículos 12 y 13, para el acceso a las enseñanzas se requerirá la superación de una prueba de carácter específico, convocada por el centro docente o bien acreditar un mérito deportivo y/o profesional.

2.– Epaimahaiaren egitura, garatzeko modua eta eraketa, proba horien edukiak eta ebaluazio-irizpideak, bai eta irakaskuntza hauetarako erdi-mailan edo goi-mailan sartzeko eskatzen diren kirol-arloko eta/edo arlo profesionaleko merezimenduak Dekretu honen I. eranskinean adierazten dira. Emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko da epaimahaiko kideen artean.

3.– Berariazko baldintzak egiaztatzeko probei buruzko kalifikazioak emateko «Gai» edo «Ez gai» terminoak erabiliko dira, arautegi orokorrean ezarritako balioa izango du probak eta 18 hilabeteko iraunaldia izango du, proba amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

15. artikulua.– Sartzeko berariazko probak, gutxitasunak dituztela egiaztatzen duten pertsonentzat egokituak.

1.– Gutxitasunen bat egiaztatuta dutelako, egokitutako proba egitea eskatzen duten pertsonak dagoen minusbalotasun-maila eta -mota egiaztatzeko ziurtagiria izan behar dute, horretarako eskumena duen erakunde ofizialen batek emana.

2.– Berariazko probak egiteko eta berariazko baldintzak baloratzeko izendatutako epaimahaiak ebaluatuko du izangaien gutxitasun-gradua eta mugak oztopo diren probetxuz ikasteko kirol-modalitateko eta -espezialitateko irakaskuntzak, norberaren mailari edo graduari dagozkien gaitasunak lortzeko eta lanbidean jarduteko. Beharra izanez gero, baimena emango da aholkulari adituak hartzeko edo kanpoko norbaiti txostena eskatzeko.

Epaimahaiak, egokitzen jotzen badu, egoera horretan dauden izangaiek gaitasun beharrekiko berariazko betebeharrak eta probak egokituak ditu, betiere dekretu honen II. eranskinean ezarritako helburuak errespetatuz.

16. artikulua.– Sartzeko berariazko proben salbu-espenak.

Honako hauek salbuetsi egingo dira irakaskuntza hauetara sartzeko berariazko probak egitetik:

a) Indarrean dagoen oinarriko araudian ezarritakoaren arabera errendimendu handiko edo horren baliokideko kirolaria dela egiaztatzen duena. Hori hala dela egiaztatzeko ziurtagiria organo eskudunak eman behar du eta gehienez hiru urteko iraunaldia izango du onurak, interesatua kirolaria dela argitaratu zen azken alditik kontatzen hasita.

b) Ziurtatzen duena kasuan kasuko kirol-federazioak herrialdearen izenean nazioarteko lehiaketetan lehen mailan aritzeko hautatua izan dela –gutxienez behin azken bi urteetan–. Hori hala dela egiaztatzeko, organo eskudunak emango du ziurtagi-

2.– La estructura, desarrollo, composición del Tribunal, contenidos y criterios de evaluación de estas pruebas, así como los méritos deportivos y/o profesionales exigidos para el acceso al Grado Medio o al Grado Superior de estas enseñanzas aparecen en el anexo I del presente Decreto. Se garantizará en el Tribunal una representación equilibrada entre mujeres y hombres.

3.– Las pruebas para acreditar los requisitos de carácter específico tiene que calificarse en términos de «Apto o Apta» o «No apto o No apta» y su superación tiene la validez prescrita en la normativa general y una vigencia de 18 meses a partir de la fecha de terminación de la prueba.

Artículo 15.– Pruebas de acceso de carácter específico adaptadas a las personas que acrediten discapacidades.

1.– Las personas que solicitan hacer una prueba adaptada por acreditar alguna discapacidad deberán aportar el correspondiente certificado acreditativo del grado y tipo de minusvalía expedido por los organismos oficiales competentes para tal fin.

